


Pedagogiako Gradua

**Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia
Fakultatea**

DONOSTIA - SAN SEBASTIAN



III MODULUA:

Hezkuntzaren Prozesuen Oinarriak

Moduluko gida



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

AURKIBIDEA

■ III. MODULUAN LANDU BEHARREKO KONPETENTZIAK.....	2
■ III. MODULUKO IKASGAIK.....	2
■ III MODULUKO DIZIPLINARTEKO LANA (DILAN)	3
○ EGIN BEHARREKO LANA.....	3
○ IKASGAIEN EKARPENA DILANari buruz.....	3
○ LANERAKO GIDOIA.....	5
■ DILAN BURUTZEKO PROZEDURA.....	7
■ EGUTEGIA.....	8
■ TXOSTENAREN EGITURA.....	8
■ DILANaren EBALUAZIO IRIZPIDEAK	9

■ III MODULUAN LANDU BEHARREKO KONPETENTZIAK

- Pertsonak, taldeak, testuinguruak eta erakundeak analizatu, ezagutza teorikoaren testuinguruan oinarrituz.
- Testuinguru formal eta ez formaletako formazio prozesuak ulertu.
- Gizarte eta hezkuntza orientazio prozesuen oinarriko baliabideak deskribatu.
- Gizarte eta hezkuntza prozesuen oinarri psikologikoak eta psikopedagogikoak zehaztu.
- Hezkuntza erakundeen egitura eta dinamika, eta hauek hezkuntza prozesuetan, giza garapenaren mailan, duten eragina interpretatu.
- Gizarte eta hezkuntza gaien inguruko ideiak, argumentuak, etab. ahoz azaldu publikoki.
- Txosten idatziak egin, ezarritako irizpide formalei jarraituz.
- Banaka zein taldeka egin beharreko ekintzak eta jarduerak burutzeko jarrera positiboa izan.
- Arduraz eta etikoki lan egin lan taldeen barruan, euren potentzialtasunean eta zailtasunak atzeman eta konponbidean jartzean eraginez.

■ III. MODULUKO IKASGAIAK

GIZARTE HEZKUNTZA GIDA OROKORRA (PDF)		GIZARTE HEZKUNTZA WEBGUNEA	
IKASTURTEA	MODULUA	IRAKASGAIAK	ECTS
2	M3- Hezkuntzaren Prozesuen Oinarriak	→ Didaktika Orokorra	6
		→ Hezkuntza Prozesu, Zerbitzu eta Erakundeen Antolaketa eta Kudeaketa	6
		→ Hezkuntza eta Gizarte Orientazioa	6
		→ Bazterketa eta Inklusio Prozesuak	6
		→ Hezkuntzaren Psikologia	6

■ III. MODULUKO DIZIPLINARTEKO LANA (DILAN)

○ EGIN BEHARREKO LANA

III. Modulurako Jardueran planteatzen duguna honetan datza: egoera zehatz bat aukeratu (filma, dokumentala, kasua edo egoera erreala), eta hezkuntza prozesuei buruz hausnartu, aztertu den egoeran ematen diren konponbide edo hobekuntzetatik desberdinak izango diren besteen proposamenak planteatzeko asmoarekin. Hau guztia moduluko bost ikasgaietako ezagutzak aplikatuz. Lana galdera baten inguruan eraikia izango da, egoeraren azterketa eginez eta konponbide edo hobekuntza proposamenak planteatuz erantzuten saiatuko gara.

Lan guztiak estruktura eta metodologia komuna izango dute:

- Aukeraketaren arrazoiak (zergatik aukeratu da bideo, dokumental, kasu edo egoera erreal hori).
- Analisia eta balorazioa: zehaztu gaia, inplikatuak dauden pertsonak, hezkuntza testuinguruak, azaldu diren egoerak.
- Ezagutzen aplikazioa eta hobekuntza proposamenak.
- Autoebaluazioa.

○ IKASGAIEN EKARPENA DILANARI BURUZ

Hezkuntzaren Psikologia

Hezkuntzaren Psikologia irakasgaiak hezkuntzari aplikatutako printzipio psikologikoak aztertzen ditu; hau da, ezagutza teoriko eta aplikatuen multzo bat ematen saiatzen da, hezkuntzako etorkizuneko profesionalek irakaskuntzan eta ikaskuntzan eragina duten prozesu eta aldagaiei buruzko hausnarketa psikoedukatiboa egin dezaten. Irakasgai honek hezkuntza-testuinguru formaletan eta ez-formaletan irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren azpian dauden ereduak identifikatzea errazten du, baita prozesu horietako pertsonen arteko eta pertsonen barruko faktoreak identifikatzea ere.

Bazterketa eta Inklusio Prozesuak

Irakasgai horren bitartez, ikasleek gizarte- eta hezkuntza-desberdintasunaren eta -bazterketaren gaia ulertu eta jorrazteko balioko duen kontzeptu-esparrua ezagutzera ematen ahaleginduko gara. Bazterketa-prozesu eta -esparruei buruzko hausnarketa eta inklusioa sustatzera bideratutako estrategiak sustatzea izango da gure helburua. Banakako lanaren eta taldeko azterketaren bitartez honako hauek egingo dira:

- Informazio-bilaketa egingo da proposatutako azterketa-kasuen testuinguruan, ikasleek bazterketa-egoerak eta prozesuak identifika eta balora ditzaten. Inklusioa lortzeko prozesuei aurre egiteko ere, informazioa bilatuko da.
- Taldeka, kasuak aztertuko dira eskusio-prozesuen dimentsioei erreparatuta eta, hortik aurrera, estrategia inklusiboak sustatzeko proposamenak egingo dira.

Didaktika orokorra

Didaktika Orokorrak irakaskuntza-ikaskuntzako nahitako prozesuetan eta haietan lantzen den Curriculumean jartzen dit arreta. Prozesu horiek aztertzeko, planifikatzeko eta garatzeko balioko diguten teoriak, sistemak eta ereduak proposatzen ditu. Moduluaren Diziplinarteko Jardueran ikuspegi didaktikoa planifikatzeko eta aztertzeko elementu didaktikoen bitartez ahaleginduko da irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak deskubritzen eta deskribatzen.

Hezkuntza Prozesu, Zerbitzu eta Erakundeen Antolaketa eta kudeaketa

Irakasgaiak hezkuntza-prozesuen "euskarria" du ardatz, hau da, prozesu horiek gauzatzeko beharrezkoak diren antolamendu- eta kudeaketa-ereduak. Horretarako, egitura iraunkorrek eta dinamikoak aztertzen dira. "Hezkuntza antolamendua" zer den ulertzetik abiatzen gara, eta bertan ikuspegi sistemiko batetik elkarreragiten duten aldagaiak xehatzen ditugu, eta, gainera, antolaketa-funtzioak erabiltzen ditugu "antolaketa" horren garapena biltzeko elementu gisa.

Horrela, ikasgai honek "eszenatoki hezitzaileen" antolamendu egitura eta dinamika aztertzen ditu. Eta horien gainean kokatuko dute moduluko ikasgaiak beren zeregin analitikoa, baloraziokoa eta hobetzeko proposamenak.

Hezkuntza eta Gizarte Orientazioa

Hezkuntza eta Gizarte Orientazioak hezkuntza prozesuak ulertzen lagundu nahi du, hiru ardatzen bidez. Batetik, hezkuntza eragileek dituzten orientazio tresna nagusien ezagutza erraztu nahi da (elkarrizketa, behaketa). Bestetik, hezitzaileen konpetentzia, funtzio eta rol orientatzaileak lantzen dira, bereziki autoestima profesionala eta konpetentzia sozioemozionalen garapena azpimarratuz. Azkenik, hezkuntza esku hartzeko programa nagusien hurbilpen bat egiten da, bai adin txikikoekin eta bai helduekin.

o LANERAKO GIDOIA

0. ESTIMULUA AUKERATZEKO ARRAZOTIAK

Aipatu eta justifikatu hautaketa hori egiten lagundu duten arrazoiak edo motibazioak.

1. HEZKUNTZA-TESTUINGURUAREN DESKRIKAPENA: PREMIEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA.

1.1. PERTSONAIEN deskribapena, zer testuinguruetan moldatzen diren eta hezkuntza erronkako zer egoeretan aurkezten diren

1.2. Pertsonen arteko eta taldeko harremanetan ezartzen diren **PROZESUEN** deskribapena, hezitzaileek erabilitako estrategiak baloratuz. Hezitzaileen funtzioa baloratu egin behar da talde dinamikan eta giza harremanetan.

- Taldeko mekanismoak deskribatzea, batik bat kohesioari eta partaidetzari erreparatuta, adibide zehatzak jarritz.
- Aukeratutako egoeran ageri diren errazteko estrategiak (estimulazioa, komunikazioa) deskribatzea eta komunikazio estrategia horiek irudikatzen dituzten behatutako jakineko adibideak seinalatzea.
- Aztertutako egoeran planteatzen diren gatazkak eta nola ebatzi diren deskribatzea.

1.3. Azterketa-testuinguruan identifikatutako **BAZTERKETA-ARRISKUEN** (egoera edota prozesuak) deskribapena.

- Ikusten diren bazterketa-dimentsioen deskribapena.
- Nahasita dauden eragileak –pertsonak, erakundeak...- eta bazterketa-prozesu horietan duten rola aurkeztea.
- Gizarte-testuinguruak eta bazterketa-guneak identifikatzea.

Gelan ikasitako esparru teorikoarekin erlazionaturiko bazterketa egoera eta prozesuen **EZAUGARRI** eta **JATORRI** posibleak aztertu eta baloratzea. Jarrera eta estrategia inklusiboen sustapenaren aurrean ikusten diren **OZTOPOAK** EDO **ZAILTASUNAK** identifikatu eta landu.

1.4. HEZKUNTZA ERAKUNDE BATEN INGURUAN INFORMAZIOA LORTZEA GAI HAUEI BURUZ.

- Hezkuntza erakundearen xedeak eta helburuak.
- Erakundearekin erlazioa duten dokumentuak eta legeria aipatu
- Erakundearen egitura (organigrama). Baliabideen egitura (giza baliabideak, ekonomikoak eta materialak...).
- Barruko eta kanpoko harreman sistema: komunikazioa, partizipazioa, harremanak, motibazioa, koordinazioa, talde lana...
- Antolakuntza dinamiken deskripzioa. Erakundearen prozesu nagusiak, lidergoa, zuzendaritza, ebaluazioa...

1.5.- Identifikatu **IRAKASKUNTZA-IKASKUNTZAKO AZPIKO EREDUAK** hezkuntza testuinguru desberdinetan.

- Identifikatu eta seinalatu deskribatutako ereduak, aukera ematen duten jakineko egoerak eta jokabideak ikusteko.
- Jokabidetan agertzen diren baloreak irakurri.
- Hezkuntza eragile eta testuinguru nagusien deskribapena.
- Hezkuntza testuinguruetan gauzatzen diren ikaskuntza prozesuetan parte hartzen duten pertsonarteko eta pertsona barruko faktoreak biltzea.

2. ESKU-HARTZEAREN UNEAK

Hezkuntza esku-hartze aurretiko errealitatearen ebaluazio edo azterketa batetik abiatzen da beti, ondoren hainbat estrategiatan oinarritutako esku-hartze programa bat inplementatzeko, eta esku-hartze horren azken ebaluazio batekin amaitzen da.

Lan honetan eskatzen da adieraz dadila prozesuko zein unetan edo unetan izango litzatekeen egokia hezkuntza-esku-hartze bat, bai pertsonen arteko edo taldeko harremanean, bai ikaskuntza-interakzioan eta estrategia didaktikoetan aztertutako prozesuak ahalik eta ondoen garatzeko. Inplementatu beharreko esku-hartzeaz gain, beharrezkoa da zer estrategia erabiliko diren adieraztea eta deskribatzea, esku-hartzeak ondorioak izan ditzan planteatutako helburu eta eremuetan.

1. **AUKERA: IRAGANA.** Iraganean zein hezkuntza interbentzio mota inplementatu zitekeen planteatzea, gatazka egoera saihesteko eta modu positiboan bideratzeko.
2. **AUKERA: GEROA.** Zer Hezkuntza-interbentzio mota inplementa daitekeen planteatzea dagoen gatazka egoera positibo bihurtzeko.

3. DILAN IKASKUNTZ-PROZESUAREN BALANTZEA; pertsonala eta taldekoa.

- 3.1. Zer balorazio egiten duzue taldeak DILANean bizi izandako prozesuaz.
- 3.2. Zer puntu nabarmendu nahi dituzue DILAN prozesuan lortutako emaitzen inguruan.
- 3.3. Zer proposamen egiten dituzue irakaskuntza ikaskuntza prozesua hobetzeko.

■ DILAN BURUTZEKO PROZEDURA

ASTEA	GELAKO LANA	BERTARATU GABEKO LANA	EMAITZA
2	DILAN aurkezpena: lan aukerak, materialak eta akta protokoloa	Estimuluak bilatu eta ikusi	Taldeak eratzeko irizpideak eta zalantzak argitu. Bestelako zalantzak.
4	Taldeak eratuko dira (4 ikaskide) Estimulu batekin lan egingo da gelan	Taldeen mugapena Identifikazio- izen bat pentsatu taldearentzako Pizgarrien balorazioa	Taldeen eraketa eta zalantza posibleak argitzea Tutorearekin lehendabiziko elkarrizketa
5/9	Talde-lana gela barruan. Lan horretarako izango dira kronograman adierazitako saioak	Lanaren zati deskribatzailea egitea: aukera hori egiteko arrazoiak, azterketa eta balorazioa	Lanaren atal deskriptiboa. Lehenengo lanaren zirriborroa egin
10/11	Talde-lana gela barruan. Lan horretarako izango dira kronograma adierazitako saioak	Lanaren zalantzak argitzea, lehenengo zatiari dagokionez	<u>Tutoreari lehen zirriborroa entregatu eta berarekin elkarrizketa</u>
12/13	Hobekuntza-proposamena	Hobekuntza-proposamena idaztea	Tutoreari lanen hobekuntza proposamenak entregatzea.
15	Lanaren aurkezpena gelan. Talde guztiak aurkezpenak entzun eta landu behar dituzte		Abenduak 14ean lan guztiak entregatuko dira. Gelan ateratako ondorioen txostena
Ordu-kopurua	7.5 ordu ikasgai bakoitzeko 37.5- guztira	15 ordu ikasgaiko 75 guztira	22.5 ordu= 0.9 kreditu 112.5= 4.5 kreditu
Kontutan hartzeko	<p>1.- Taldean lortzen den notak 0 eta 1,5 puntu artean balioko du. Notaren puntu bat informea eta 0,5 aurkezpena.</p> <p>2.- DILAN derrigorrezkoa da eta norbaitek uzten baldin badu koordinatzailearekin hitz egin beharko du.</p>		

■ EGUTEGIA

Ikasgelako DILANaren lan-saioak moduluko bost ikasgaietako bakoitzean adierazitako egunetan egingo dira.

31. TALDEA

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	AZTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
1 Irail.	7	8	9	10	11
2	14 AURK.	15	16	17	18
3	21	22	23	24	25
4 Urr.	28. Gizarter.	29	30	1	2
5	5	6 Didakt.	7	8 Orientaz.	9
6	12	13	14 Antolak.	15	16 Psikolog.
7	19 Gizarter.	20	21	22	23
8	26	27 Didakt.	28	29	30
9 Azar.	2	3	4	5 Orientaz.	6
10	9	10	11 Antolak.	12	13 Psikolog.
11	16	17	18	19	20
12	23	24	25	26 Orientaz.	27
13 Abe.	30 Gizarter.	1 Didakt.	2	3	4 Psikolog.
14	7	8	9 Antolak.	10	11
15	14 AURK.	15 AURK.	16 AURK.	17 AURK.	18 AURK.

* Azken astean, egindako proiektuen aurkezpenak baino ez dira egingo.

32. TALDEA

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	AZTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
1 Irail.	7	8	9	10	11
2	14 AURK.	15	16	17	18
3	21	22	23	24	25
4 Urr.	28. Didakt.	29	30	1	2
5	5	6 Antolak.	7	8 Psikolog.	9
6	12	13	14 Gizarter.	15	16 Orient.
7	19 Didakt.	20	21	22	23
8	26	27 Antolak.	28	29	30
9 Azar.	2	3	4	5 Psikolog.	6
10	9	10	11 Gizarter.	12	13 Orient.
11	16	17	18	19	20
12	23	24	25	26 Psikolog.	27
13 Abe.	30 Didakt.	1 Antolak.	2	3	4 Orient.
14	7	8	9 Gizarter.	10	11
15	14 AURK.	15 AURK.	16 AURK.	17 AURK.	18 AURK.

* Azken astean, egindako proiektuen aurkezpenak baino ez dira egingo.

■ TXOSTENAREN EGITURA

Amaierako txostenak atal hauek izango ditu:

1. Azala, taldeko kideen izenak eta tutorearena barne.
2. Aurkibidea atal bakoitza zer orrialdetan dagoen adieraziz.
3. Sarrera:
 - a. Lana aukeratzeko arrazoiak.
 - b. Testuingurua.
4. Lanaren garapena: testuingurua, behar identifikazioa eta balorazioa.
5. Esku hartzearen uneak eta baliabideak.
6. Moduluko irakasgaien ikuspegi integratu batetik idatzitako ondorioak.
7. Lanaren mugak eta hobekuntza-proposamenak
8. Kontsultatutako bibliografia eta erabilitako informazio teknikak.
9. Eranskinak, taldearen autoebaluazioa duen eranskina gehitu beharko da, eta baita elkarrizketen transkripzioak, audio eta bideo formatutako grabazioak eta abar jasotzen dituzten beste eranskin batzuk ere.

Alderdi formalak: Times New Romans 12, Lerroartean 1.5.

Gutxi gora beherako orri-kopurua: 20

■ EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

- a) **Egokitasuna:** txostenaren edukiak aztergaia osorik eta modu koherentean eta osotasunean azalduko du. Hala, txostenaren irakurketa aztergaiak eragindako hasierako galderaren ondo landutako erantzuna izango da.
- b) **Informazioa antolatzea.** Emandako informazioak ondo antolatuta egon behar du (dokumentuan adierazitako egiturari jarraituz). Grafikoak eta taulak ongi eraiki, zenbatu eta izendatu behar dira. Lortutako informazioa eta datuak erraz aurkitu behar dira.
- c) **Ondorioak txertatzea eta justifikatzea.** Ondorioek arazoaren ikuspegi osoa eman behar dute, eta eskuratutako datuetan oinarrituko dira. Ondorioen argudioek argiak eta koherenteak izan behar dute.
- d) **Idatziaren zuzentasuna eta adierazpidea** unibertsitatea eska diezaiokeen mailakoak izango dira, bai alderdi formalari dagokionez (ortografia, aipamenak, bibliografia, erreferentziak...) bai testuaren kohesio eta koherentziari dagokionez.
- e) **Ahozko aurkezpena:** gelan baloratuko da (%30).
- f) **Genero azterketa:** garrantzitsua da eta baloratuko da.

- g) **Autoebaluazioa:** ikaskuntza prozesu beraren inguruan hartutako kontzientziari buruzko autoebaluazioan egindako hausnarketen eta haren hobekuntzarako ateratako ondorioen kalitatea baloratuko da.